



EBAZPENA, 2024ko apirilaren 25ekoa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateek barematu behar dituzten merezimenduengatik izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak)

Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetarako (hautaketa-prozedurak 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren) deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 9. oinarrian zehaztutakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Argitara ematea izangaiek merezimenduengatik lortutako behin-behineko puntuazioak, baldin eta meritu horiek barematzea Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateei badagokie (I., II. eta III. eranskinetako merezimenduak, salbu eta etengabeko prestakuntza, argitalpenak eta berrikuntza- eta esperimenduzko proiektuak), Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak).

Bigarrena.– Espezialitate guztietako izangaiek merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda hemen argitaratuko da:

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu behar dira – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko eta ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaitzak» – «Lehiaketa-fasea» – «Partziala»).

Hirugarrena.– Argitara ematen dira oposizio-fasea gainditu duten izangaiei esleitutako behin-behineko puntuazioak, salbu eta ohiko lehiaketa-oposizioa maisu-maistren kidegoko espezialitateetan eta ohiko eta egonkortzeko lehiaketa-oposizioa Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko espezialitateetan; izan ere, behin-behineko ebazpen hau argitaratu den egunean ez dira argitaratu aipatutako kidegoetako espezialitate guztietako oposizio-faseko behin betiko kalifikazioak (kasu horietan, onartutako pertsona guztiak agertuko dira zerrendetan). Hala ere, lehiaketa-fasean lortzen den behin betiko kalifikazioa oposizio-fasea gainditu duten izangaiei soilik aplikatuko zaie.

Laugarrena.– Behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, hamar egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Halaber, epe berean, bidezkoa dena zuzendu ahal izango dute, zuzendu beharreko kasuen zerrendaren arabera. Zerrenda hori esleitutako puntuazioaren behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko da. Erreklamazioak eta zuzenketak online aurkeztuko dira, helbide honetan:



[https://hezigunea.euskadi.eus/\(sartu](https://hezigunea.euskadi.eus/(sartu) «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza») – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko eta ohiko lehiaketa-oposizioa – «Merezimenduak (LKZ): erreklamazioak eta zuzenketak entregatzea».

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 25a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.